

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Zuzentaraua: 2009/16/EE Zuzentaraua, 2009ko apirilaren 23koa, 2009ko apirilaren 23koa, portua zuzentzen duen estatuak ontziak kontrolatzeari buruzkoa

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2009/16/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2009, sobre el control de los buques por el Estado rector del puerto» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 131/57, 2009/05/28koa*)»
2009/16/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131, 2009/05/28koa)

2009/16/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2009ko apirilaren 23koa, portua zuzentzen duen estatuak ontziak

kontrolatzeari buruzkoa (bertsio bategina) (Texto pertinente a efectos

del EEE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 80. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute

(¹),

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute (²),

Tratatuko 251. artikuluan xedatutako prozedura bete dute. Kontuan hartu dute Adiskidetzeko Komiteak 2009ko otsailaren 3an onartutako testu bateratua (³),

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

- (1) Kontseiluaren 95/21/EE Zuzentaraua (1995eko ekainaren 19koa, portuaren estatuak ontziak kontrolatzeari buruzkoa) (4), hainbatetan aldatu da, funtsean aldatu ere. Beste aldaketa batzuk egin behar direnez, komeni da zuzentaraua bateratzeari ekitea, argiago izan dadin.
- (2) Erkidegoa oso kezkatuta dago, estatu kideetako kostalde eta itsasoen kutsadura eta itsasoko ezbeharrak direla eta.
- (3) Erkidegoa kezkatuta dago, halaber, ontzien barruko bizi- eta lan-baldintzak direla eta.
- (4) Era eraginkorren hobe daiteke segurtasuna, prebeni daiteke kutsadura eta hobe daitezke ontzien barruko bizi- eta lan-baldintzak, erkidegoko uretan diren ontzi akastunen kopurua gogor murriztuz. Horretarako, zorrozkari aplikatu behar dira nazioarteko hitzarmenak eta kode eta ebazpenak.

(5) Kontseiluaren 2007ko ekainaren 7ko 2007/431/EE Erabakiarekin (⁵) bat (erabaki horren bitartez baimena eman zitzaizen estatu kideei Lanaren Nazioarteko Erakundearen 2006ko Itsasoko Lanari buruzko Hitzarmena berresteko, Europako Erkidegoaren onerako), estatu kideek ahalegina egin behar dute, arlo horretan, hitzarmen hori – Erkidegoaren eskumenekoak diren atalak, zehazki – ahalik eta lasterren berresteko, 2010eko abenduaren 31 baino lehen, ahal bada.

(6) Ororen gainetik, banderako estatuak izango du ardura ontziek segurtasunari, kutsadura prebenitzeari eta bizi- eta lan-baldintzak hobetzeari buruzko nazioarteko arauak betetzen dituzten ala ez kontrolatzeko. Egoki bada onetsiriko erakundeetara joz, banderako estatuak guztiz bermatu behar du kasuan kasuko ziurtagiriak emateko egiten diren ikuskatzeak eta azterketak osorik eta era eraginkorren egingo direla. Ontziaren konpainiak izango du ardura ontzia eta ekipamendua baldintza onetan izateko ikuskatzearen ondoren, ontziari aplikagarri zaizkion hitzarmenetako betekizunak betetz. Dena den, ikusi da estatu horietako zenbaitek akats larria egin dutela nazioarteko arauak aplikatu eta betetzean. Aurrerantzean, ontzi akastunen arriskuetatik babesteko bigarren defentsa-maila gisa, komeni da portuen estatu gidariei berma dezatela, orobat, segurtasunari, kutsadura prebenitzeari eta ontzietako bizi- eta lan-baldintzei buruzko nazioarteko arauak betetzen diren ala ez kontrolatuko dela. Halaber, onartu behar dute portuaren estatuaren kontrola ikuskatzea ez dela azterketa, eta horri loturiko ikuskatze-dokumentuak ez direla nabigarritasun-ziurtagiriak.

(7) Estrategia bateratu batek, estatu kideek, beren portuak erabiltzen dituzten eta beren jurisdikziopeko uretan ibiltzen diren ontzien arloan, nazioarteko arauak era eraginkorren bete ditzaten lortzekoak, lehia ez faltutzea lortu behar du.

(8) Itsas sektorean erraza da terroristen atentatuak izatea. Egokia da garraioa babesteko neurriak era eraginkorren aplikatzea, eta estatu kideek zorrozkari zaintzea babes-neurriak bete daitezen, kontrolak eginez.

(9) Portuak zuzentzen dituzten estatuak ikuskatzeari buruzko akordioaren memoranduma aplikatu izanaren esperientzia aprobetxatu behar da (1982ko urtarrilaren 26an Parisen sinatua, «Parisko akordioaren memoranduma» deitu zena).

(10) Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak (EMSA), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1406/2002 (EE)

¹ EO C 318, 2006.12.23koa, 195. or.

² EO C 229 2006.09.22koa, 38. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko apirilaren 25ekoa (EO C 74 E, 2008.8.30ekoa, 584. or.), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2008ko ekainaren 6koa (EO C, 2008.7.22koa, 1. or.), Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko irailaren 24koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea), Kontseiluaren 2009ko otsailaren 16ko Erabakia eta Europako Parlamentuaren Lege Ebazpena, 2009ko martxoaren 11ko (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

⁴ EO L 157, 1995.7.7koa, 1. or.

⁵ EO L 161, 2007.06.22koa, 63. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamenduaren bitartez sortuak ⁽¹⁾, beharrezko laguntza eman behar du portua zuzentzen duen estatuak kontrol-sistema era bateratuan eta eraginkorrean aplikatu dezan. Bereziki, EMSAk lagundu behar du, batetik, zuzentzarau honi jarraikiz sortutako ikuskatzeen datu-basea egin dadin eta horrek funtziona dezan, eta, bestetik, Erkidegoko sistema bateratua egin dadin eta horrek funtziona dezan, estatu kideek prestakuntza eman diezaioten portua zuzentzen duen estatuak ontzien gainean egin beharreko kontrolaren ardura duten ikuskatzaileei, eta haien gaitasuna ebalua dezaten.

- (11) Portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistema eraginkorrak xede izan behar du Erkidegoko portu edo ainguralekuren batean geldialdia egiten duten ontzi guztiak aldizka ikuskatzea. Ikuskatzeak arreta nagusia jarri behar du ontzi akastunetan; eta, aldiz, ikuskatze gutxiago egingo zaizkie kalitatezko ontzietan, hau da, ikuskatze-historial onak dituztenei edo Nazioarteko Itsas Erakundeko (OMI) estatu kideetako borondatezko ikuskatzeen sistema betetzen duen estatu baten bandera dutenei. Bereziki, xede horretarako, estatu kideek oro har lehenatasuna eman behar diote arrisku handiko profila duten ontziak ikuskatzeari.
- (12) Ikuskatze-prozedura berri horiek portua zuzentzen duen estatuaren ontziak kontrolatzeko Erkidegoko sistemara sartu behar dira haien alderdi guztiak zehaztu bezain laster, eta ikuskatzeak banatuko dituen sistema oinarritzat hartuta. Sistema horri esker, estatu kideek era bidezkoan lagunduko dute Erkidegoaren helburua betetzen; alegia, ikuskatze-sistema zorrotza egitea eta estatu kide bakoitzean ikuskatzeen bolumena parekatua izatea. Ikuskatzeak banatuko dituen sistema hori berraztertu behar da. Berraztertzean, kontuan izan behar da portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistema berriarekin eskuratutako esperientzia, sistema eraginkorrago egiteko. Gainera, estatu kideek beharrezko langileak kontratatu eta horiei eutsi behar diote, ikuskatzaile gaituak barne, portu bakoitzeko itsasoko zirkulazioaren ezaugarriak eta bolumena kontuan hartuta.
- (13) Zuzentzarau honen bitartez sortutako ikuskatze-sisteman kontuan hartu dira Parisiko akordioaren memorandumaren esparruan egindako lanak. Memorandum horretatik datorren edozein berrikuntza Erkidegoan onartu behar denez EBn ezarri aurretik, beharrezkoa da koordinazio estua hasi eta edukitzea Erkidegoaren eta Parisiko akordioaren memorandumaren artean, ahalik eta bateratasun handiena izan dadin.
- (14) Europako Batzordeak kudeatu eta eguneratu behar du ikuskatzeen datu-basea, Parisiko akordioaren memorandumarekin lankidetzat estuan. Ikuskatzeen datu-basean jaso behar dira estatu kideetako ikuskatze-datuak, bai eta Parisiko akordioaren memoranduma sinatu zuten estatu guztietakoak ere. Itsasoko informazioa biltzeko SafeSeaNet Erkidegoko sistema guztiz eraginkorra izan arte eta ontzien geldialdiei buruzko datuak ikuskatzeen datu-basean automatikoki erregistratzeko aukera ematen duen arte, estatu kideek Batzordeari eman beharko diote beharrezko informazioa, zuzentzarau hau aplikatzearen gaineko jarraipen egokia egingo dela bermatzeko, ontzien mugimenduaren arlokoa, bereziki. Estatu kideek emango dituzten ikuskatzeen datuak oinarri hartuta, Batzordeak honako hauei buruzko datuak atera behar ditu ikuskatzeen datu-basetik: ontzien

arrisku-profilari, ikuskatu beharko diren ontzietan eta ontzien mugimenduetan buruzko datuak. Halaber, estatu kide bakoitzerako ikuskatze-konpromisoak ere kalkulatu beharko ditu. Ikuskatzeen datu-basea, orobat, interfazea izango da itsasoko segurtasunari buruzko Erkidegoko bestelako datu-base batzuetan sartzeko.

- (15) Estatu kideek saiatu behar dute, Parisiko akordioaren memorandumaren esparruan, banderako estatuen zerrenda zuria, grisa eta beltza egiteko metodoa aztertzen, metodo hori bidezkoa izan dadin bermatzeko, bereziki banderako estatuek flota txikiekin duten tratuan.
- (16) Portuen estatu gidarien ikuskatzeetarako arauak eta prozedurak, bai eta ontziak ibilgetzeko irizpideak ere, bateratu egin behar dira, portu guztietan berdin-berdin eraginkor izan daitezten. Horri esker, gogor murriztuko da ontzietan portu jakin batzuen erabilera selektiboa egitea, nolabaiteko kontrolen bat saihesteko.
- (17) Aldizkako ikuskatze gehigarrietan, ontzietan aurretik zehaztutako guneak aztertuko dira; eta ez dira beti berdinak izango: ontzi-motaren, ikuskatze-motaren eta portuak zuzentzeko estatuak aurretik egindako kontrol-ikuskatzeen emaitzen arabera izango dira. Ikuskatzeen datu-basean adierazi behar dira ikuskatze bakoitzean kontrolatu behar diren arriskuguneak mugatzeko aukera emango duten elementuak.
- (18) Ontzi-kategoria jakin batzuek arrisku handia izaten dute istripuren bat izateko edo kutsatzeko, urte-kopuru batera iristen direnean; eta, beraz, ikuskatze zabalagoak egin behar zaizkie. Ikuskatze zabalago horien xehetasunak zehaztu behar dira.
- (19) Zuzentzarau honek ezarritako ikuskatze-sistemaren arabera, ontzien aldizkako ikuskatzeen arteko denbora-tarteak ontzien arrisku-profilaren arabera izango dira. Arrisku-profila zenbait parametro generiko eta historikok erabakitzen dute. Arrisku handiko ontzietarako, denbora-tarte horrek sei hilabetetik beherakoa izan behar du.
- (20) Portua zuzentzen duen estatuak kontrolaren arloko agintari eskudunei portuan edo ainguralekuan dauden ontzietan buruzko informazioa emateko, ontziak portura iritsi direla ohartarazteko jakinarazpenak helarazi beharko dituzte portuko agintariak edo erakundeak edo xede horretarako izendatutako diren agintariak edo erakundeak, eta jaso bezain laster egin behar dute hori, ahal den heinean.
- (21) Zenbait ontzi, beren egoera txarraren, banderako estatuaren betetze-mailaren eta aurrekariaren arabera, nabarmen arriskutsu dira itsasoko segurtasunerako eta itsasoko ingurunerako. Zilegi da, beraz, Erkidegoa ontzi horien estatu kideetako portuetan edo ainguralekuetan sartzeko asmoa aldarazten saiatzea. Sarrera ukatzeak proportzionatua izan behar du, eta sartzeta betiko uka daiteke baldin eta ontziaren ustiatzaileak behin eta berriz uko egiten badio zuzentze-neurriak ezartzeak, nahiz eta hainbat aldiz sarrera ukatu eta ibilgetuta izan Erkidegoko portu eta ainguralekuetan. Zenbait baldintza betetzen direnean soilik bota ahal da atzera hirurgarren sarrera-ukatzea. Ontziaren banderako estatuari eta konpainia kudeatzaileari buruzkoak dira,

¹ EO L 208, 2002.08.05eko, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- bereziki, eta bermatu behar dute kasuan kasuko ontzia Erkidegoko uretan ibil daitekeela, arriskurik sortu gabe. Baldintzak betetzen ez dituen ontziari era iraunkorrean ukatuko zaio estatu kideetako portu eta ainguralekuetarako sarrera. Nolanahi ere, kasuan kasuko ontzia gerora ibilgetzeak estatu kideetako portu eta ainguralekuetarako sarrera era iraunkorrean ukatzea eragingo du. Prozesu hori guztia gardena izan dadin, Erkidegoko portu eta ainguralekuetarako sarrera ukatu zaien ontzien zerrenda jendaurrean jarri beharko da.
- (22) Ikuskatzeak behin eta berriz egiteak zenbait administrazio eta konpainiari dakarkien zama murrizteko, Kontseiluaren 1999/35/EE Zuzentarauaren ⁽¹⁾ arabera (1999ko apirilaren 29koa, ibilgailuen transbordadoreen eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzien zerbitzu erregularretako esplotazioan segurtasuna bermatzeko derrigor gauzatu behar diren azterketen araubideari buruzkoa) ontziaren banderako estatua ez den estatu kide batek ibilgailuen transbordadoreetan eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzietan egindako azterketak (gutxienez, ikuskatze zabaletako elementu guztiak barnean dituztenak) kontuan izango dira honako hauek kalkulatzeko: ontziaren arrisku-profila, ikuskatzeen arteko denbora-tarteak eta estatu kide bakoitzeko ikuskatze-konpromisoa betetzen duen ala ez. Gainera, Batzordeak aztertu beharko du ea egokia den, etorkizunean, aipatutako 1999/35/EE Zuzentaria aldatzea, estatu kideetako portuetara doazen eta haietatik irtengo diren ibilgailuen transbordadoreetako eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzien zerbitzuak ustiatzeko segurtasunerako eskatzen den segurtasun-maila goratzeko.
- (23) Hitzarmenetako xedapenen ez-betetzeak zuzendu behar dira. Egoki da ibilgetzea zuzentze-neurriak behar dituzten ontziak, egin dituzten ez-betetzeak argi eta garbi arriskutsuak badira segurtasunerako, osasunerako edo ingurumenerako. Ibilgetuta egongo dira gabeziak zuzendu arte.
- (24) Agintari eskudunek hartutako ibilgetze-erabakien aurka errekurtsoa aurkezteko eskubidea izan behar da, bidegabeko ibilgetzeak eta atzerapenak eragin ditzakeen oinarririk gabeko erabakirik har ez dadin. Estatu kideek lankidetzan jardun beharko dute, errekurtsoak bidezko epean aztertuko direla bermatzeko, estatu bakoitzak bere legediaren arabera.
- (25) Portua zuzentzen duen estatuen kontrol-jardueretan parte hartuko duten agintari eta ikuskatzaileek ez dute interes-gatazkarik izan behar ez ikuskatzea egingo den portuarekin ez ikuskatutako ontziekin, ezta antzeko bestelako interesik ere. Ikuskatzaileek ongi prestatuta egon behar dute, eta prestakuntza egokia jaso ikuskatze-lanak egiteko duten gaitasunari eutsi eta hura hobe dezaten. Estatu kideek lankidetzan jardun behar dute ikuskatzaileei prestakuntza emateko eta haien gaitasuna ebaluatzeko Erkidegoko sistema bateratua egin eta sustatzeko.
- (26) Portuko gidariek eta agintariek edo portuko erakundeek gai izan behar dute informazio erabilgarria emateko ontzien barruan ikusitako arazo nabarmenen gainean.
- (27) Ikertu egin behar dira ontzien barruko bizi- eta lan-baldintzei buruzko salaketak, bidezko interesa duten pertsonak aurkeztu ditzaketenak. Salaketaren bat aurkezten duen pertsona orori jakinarazi behar zaio salaketak zer bide izan duen.
- (28) Beharrezkoa da estatu kideetako agintari eskudunek eta bestelako agintari eta erakundeek lankidetzan jardutea, akatsen bat izanik ere ibilbidean jarraitzeko baimena eman zaien ontzien jarraipen eraginkorra egingo dela ziurtatzeko eta portuan dauden ontziei buruzko informazioa elkarri emateko.
- (29) Ikuskatzeen datu-basea funtsezko elementua denez portua zuzentzen duen estatuak egingo duen ontzien kontrolerako, estatu kideek bermatu behar dute datu-base hori eguneratuta egongo dela, Erkidegoko xedapenen arabera.
- (30) Konpainiek ustiatzen duten flotaren tamaina kontuan izanik, segurtasunari, osasunari eta itsasoko ingurumena babesteari buruzko nazioarteko arauak betetzen ez dituzten ontzien, haien ustiatzaileen edo konpainien gaineko informazioa argitaratzea modu eraginkorra izan daiteke merkantzia-bidaltzaileei ontzi horiek erabiltzeko asmoa kentzeko. Era berean, pizgarria izan daiteke jabeek beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzaten. Eman beharrek informazioari dagokionez, bikoizterik izan ez dadin, Batzordeak lankidetzan jardun behar du Parisko akordioaren memorandumarekin, eta aintzat hartu behar du argitaratutako den informazio guztia. Estatu kideek behin bakarrik eman behar dute dagokion informazioa.
- (31) Jabeak edo ustiatzaileak bere gain hartu behar du ontzia ibilgetzea eragin duen ikuskatzearen kostu osoa, bai eta sarrera-ukatzea balio gabetzetik eratorritako kostuak ere.
- (32) Zuzentaria hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari ⁽²⁾ jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki.
- (33) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea zuzentaria hau alda dezan, nazioarteko hitzarmenetan, kodeetan eta haiei loturiko ebazpenetan etorkizunean egiten diren aldaketak bertan sartzeko, eta 8. eta 10. artikulua aplikatzeko modalitateak ezar ditzan. Neurri horiek orokorrak eta Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

¹ EO L 138, 1999.06.01ekoa, 1. or.

² EO L 184, 1999.07.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(34) Estatu kideek ezin dituztenez behar bezala bete zuzentarau honen helburuak (hots, estatu kideen jurisdikziopeko uretan itsasoko garraibide akastunak murriztea, itsasontziak ikuskatzeko Erkidegoko sistema hobetzearen bitartez; eta itsasoak kutsatzea prebenitzeko bitartekoak sortzea) eta, beraz, ekintzaren garrantzia eta ondorioak direla-eta, Erkidegoan hobeto bete daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake Tratatu 5. artikuluan emandako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(35) Zuzentarau hau estatuko legedietan barneratzeko beharra mugatua da: 95/21/EE Zuzentaruarekiko aldaketa nabarmena dakarten xedapenak bakarrik barneratu beharko dira. Aldatu gabeko xedapenen transposizioa egiteko beharra Zuzentarau horrek zehazten du.

(36) Zuzentarau honek ez die eragingo XV. eranskineko B zatian adierazitako zuzentaruak estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei buruz estatu kideei ezartzen zaizkien betebeharrak.

(37) Portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistema, zuzentarau honekin bat ezarria, egun berean ezarri behar da estatu kide guztietan. Ildo horretan, Batzordeak bermatu behar du prestatze-neurri egokiak hartuko direla. Neurri horien barruan izango dira ikuskatzeen datu-basea egiaztatzea eta ikuskatzaileei prestakuntza ematea.

(38) Instituzio arteko «Lege hobeak egitea» Akordio 34. puntuan arautzen denari jarraiki, estatu kide orok nork bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, zuzentarau honek eta transposizio-neurriak bat nola datozen erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuarentzat, bai Erkidegoarentzat.

(39) Itsasertzik ez duten estatu kideei gehiegizko administrazio-zamarik ezar ez dakien, gutxieneko xedapenen arau batek aukera eman behar die estatu kide horiei zuzentarau honetan xedatutakoa aplikatu behar ez izateko. Bestela esanda, estatu kide horiek ez dute betebeharririk zuzentaruaren beren barne-zuzenbidean sartzeko, betiere irizpide jakin batzuk betetzen badituzte.

(40) Itsasoz bestaldeko departamendu frantsesak beste geografiera-eremu batean daude. Portua zuzentzen duen estatuari buruzko eskualdeko memoranduetako alderdi dira, hein handi batean, eta ez Parisko akordioaren memorandumeak. Gainera, oso zirkulazio mugatua dute Europa kontinentalarekin. Hori kontuan izanik, eragindako estatu kideari aukera eman behar zaio Erkidegoan aplikatzen den portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistematik kanpo uzteko portu horiek.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1.

artikulua

Xedea

Zuzentarau honen xedea da gogor murrizten laguntzea estatu kideen jurisdikziopeko uretan dabiltzan ontzi akastunen kopurua. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

a) Hobeto bete itsasoko segurtasunari, itsasoa babesteari, itsasoko ingurumena babesteari eta edozein banderako ontzien barruko bizi- eta lan-baldintzei buruzko nazioarteko eta Erkidegoko legedia.

b) Irizpide komunak ezarri, portua zuzentzen duen estatuak ontziak kontrola ditzan; eta ikuskatze- eta ibilgetze-prozedurak bateratu, Parisko akordioaren memorandumaren esparruan eskuratutako esperientzia eta ezagutza espezializatua aprobetxatuz.

c) Erkidegoan aplikatu portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistema (Erkidegoan eta Parisko akordioaren memorandumaren eskualdean egindako ikuskatzeetan oinarritua), xedetzat hartuta ontzi guztiak ikuskatzea bakoitzaren arrisku-profilaren arabera egokia den denbora-tartean. Arrisku handiagoa ekar dezaketen ontziei ikuskatze zehatzagoak eta maizago egingo zaizkie.

2. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira oinarri:

1) «Hitzarmenak»: jarraian zerrendatu direnak, berekin dakartzaten protokolo eta zuzenketekin batera; eta bakoitzaren derrigorrezko kodeak, indarrean den bertsioan:

a) Karga-marrei buruzko nazioarteko hitzarmena, 1966koa (LL 66);

b) Itsasoan giza bizitza babesteko nazioarteko hitzarmena, 1974koa (SOLAS 74);

c) Itsasontziek sortutako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmena, 1973koa; eta hitzarmen horretako Protokoloa, 1978koa (Marpol 73/78);

d) Marinelentzako prestakuntza-, titulu- eta zaintza-arauei buruzko nazioarteko hitzarmena, 1978koa (STCW 78/95);

e) Abordatzeak prebenitzeko nazioarteko Erregelamenduari buruzko hitzarmena, 1972koa (Corleg 72);

¹ EO C 321, 2003.12.31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- f) Ontzien neurketari buruzko nazioarteko hitzarmena, 1969koa (Neurketa 1969);
- g) Merkataritza-itsasketako gutxieneko arauari buruzko hitzarmena, 1976koa (LANE 147. zk.);
- h) Hidrokarburoen kutsadurak eragindako kalteengatik erantzukizun zibilari buruzko nazioarteko hitzarmena, 1992koa (CLC 1992).
- 2) «Parisko akordioaren memoranduma»: Portua zuzentzen duen estatuaren ikuskatzeei buruzko akordioaren memoranduma, 1982ko urtarrilaren 26an Parisen sinatua, indarrean den bertsioa.
- 3) «Nazioarteko Itsas Erakundeko kide diren estatueta borondatezko ikuskatzeen planerako esparrua eta prozedurak»: Nazioarteko Itsas Erakundeko biltzarren A.974(24) Ebazpena.
- 4) «Parisko akordioaren memorandumaren baitako eskualdea»: Parisko akordioaren memoranduma sinatu zutenek, Parisko akordioaren memoranduma betez, ikuskatzeak egiten dituzten eremu geografikoa.
- 5) «Itsasontzia»: itsas nabigaziorako itsasontzi oro, hitzarmenetako bat aplikagarri zaiona eta portua zuzentzen duen estatuko bandera ez den beste bat duena.
- 6) «Ontzia/portua interfazea»: pertsonen edo salgaien mugimendua dakarten ekintzek edo portuan ontzira edo ontzitik zerbitzuak emateko egiten diren jarduerak ontzian eragin zuzena eta berehalakoa dutenean gertatzen den elkarrekintza.
- 7) «Ontzia ainguralekuan»: ontzi bat portuan edo portuaren jurisdikziopeko eremuan egotea, baina amarratu gabe, ontzia/portua interfaze batean.
- 8) «Ikuskatzailea»: administrazio publikoko langilea edo beste edozein pertsona, estatu kide bateko agintaritza eskudunak behar bezala baimendu duena portua zuzentzen duen estatuaren kontrol-ikuskatzeak egiteko, eta agintaritza eskudun horien aurrean erantzule dena.
- 9) «Agintari eskuduna»: itsasoko agintaria, zuzentarau honekin bat, portua zuzentzen duen estatuaren kontrolaren arduradun dena.
- 10) «Gaueko ordutegia»: denbora-aldia, zazpi ordukoa edo luzeagoa, estatuko zuzenbidean zehaztutakoaren arabera; nolana ere, denbora-aldi horren barruan egongo da gauerdia eta 05:00ak bitarteko denbora-tartea.
- 11) «Hasierako ikuskatzea»: ikuskatzaile batek ontzira egiten duen bisita, aplikagarri diren hitzarmen eta erregelamenduetan xedatutakoa betetzen duela egiaztatzeko; bisita horretan, gutxienez, 13. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako egiaztapenak egiten dira.
- 12) «Ikuskatze zehatzagoa»: ontzia, ontziko ekipamendua eta tripulazioa, oro har, eta horien zatiak, beharrezko bada, sakon aztertzeke egiten den ikuskatze oro. Ikuskatzea 13. artikuluko 3. paragrafoan zehaztutako inguruabarretan egiten da eta honako hauek aztertzen dira: ontziaren eraikuntza, ekipamendua, tripulazioa, bizi- eta lan-baldintzak eta ea ontzia ustiatzeko prozedurak betetzen diren ala ez.
- 13) «Ikuskatze zabalagoa»: gutxienez VII. eranskinean zerrendatutako elementuak aztertzeke egiten den ikuskatzea. Ikuskatze zabalagoan azterketa zehatzagoa egin daiteke, betiere arrazoi funtsaturik badago, 13. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat.
- 14) «Salaketa»: ontziaren segurtasunean bidezko interesa duen edozein pertsona edo erakunde aurkeztutako edozein informazio edo txosten; bereziki, osasunerako arriskueta eta tripulazioaren segurtasunean, ontzi barruko bizi- eta lan-baldintzetan eta kutsadura prebenitzean interesa duen batek aurkeztutakoa.
- 15) «Ibilgetzea»: ontzi bat itsasoratzeko debeku ofiziala, akats bakar batek edo hainbatek batera eragina, ontzia itsasoan ibiltzeko baldintzetan ez dagoela egiaztatu delako.
- 16) «Sarrera-ukatzearen jakinarazpena»: ontzi bateko kapitainari, ontziaren arduradun den konpainiari eta banderako estatuari jakinarazten zaion erabakia, ontziari Erkidegoko portu eta ainguraleku guztietarako sarrera ukatu zaiola adierazteko.
- 17) «Operazio bat geldiaraztea»: ontzi batek operazio batekin jarraitzeko debeku ofiziala, egiaztatu delako akatsen bat edo zenbait direla-eta arriskutsua dela operazio horrekin jarraitzea.
- 18) «Konpainia»: ontziaren jabea edo beste edozein erakunde edo pertsona, hala nola ontziaren kudeatzailea edo krosko biluziko pleitaria (jabeak haren edo haien esku uzten du ontzia ustiatzeko ardura eta hark edo haiak, ardura hori onartzearekin, Segurtasuna kudeatzeko nazioarteko kodean (IGS kodea) hitzartutako betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzen dituzte).
- 19) «Onetsiriko erakundea»: ontziak sailkatzeko enpresa edo bestelako erakunde pribatua, banderako estatuko administrazioaren izenean araudi-zereginak egiten dituena.
- 20) «Derrigorrezko ziurtagiria»: banderako estatuak emandako ziurtagiria, edo, hitzarmenekin bat, haren izenean emandako ziurtagiria.
- 21) «Sailkapen-ziurtagiria»: SOLAS 74 Hitzarmeneko II-1. kapituluko A-1 zatiko 3-1 araua betetzen dela egiaztatzen duen dokumentua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

22) «Ikuskatzeen datu-basea»: informazio-sistema bat, Erkidegoaren barruan zuzentzen duen estatuaren kontrol-sistema aplikatzen laguntzen duena; barnean izaten ditu Erkidegoan eta Parisko akordioaren memorandumaren eskualdean egindako ikuskatzeen datuak.

3. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau aplikatuko zaie, ontzia/portua interfazea egiteko, estatu kideren bateko portu edo ainguraleku batean geldialdia egiten duten ontzi guztiei eta ontzietako tripulazioari.

Frantziak erabaki dezake paragrafo honen xede diren portu eta ainguralekuen artetik kanpo gera daitezela itsasoz bestaldeko departamenduetan dauden portu eta ainguralekuak (Tratatuko 299. artikuluko 2. paragrafoan aipatuta daude).

Zuzentarau honen ondorioetarako, ikuskatetzat joko dira estatu kide batek bere jurisdikziopeko uretan –portuetako urak ez direnetan– egingo dituen ontzien ikuskatzeak.

Artikulu honetako xedapenetako batek ere ez du eraginik izango kasuan kasuko hitzarmenek estatu kideari ematen dizkioten esku hartzeko eskubideetan.

Zuzentarau honetan xedatutakoari salbuespenak egin dakizkieke estatu kide hauei: itsas porturik ez dutenei eta egiaztatu ahal izan dutenei, aurreko hiru urteetan, beren barruko uretako portuetan urte bakoitzean geldialdia egin duten ontzien % 5 baino gutxiago sartzen dela zuzentarau honen aplikazio-eremuaren baitan.

Itsas porturik ez duten estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote, beranduenik ere zuzentzeara barne-zuzenbidera sartuko den egunean, aipatutako hiru urteko aldiaren beren portuetan geldialdia egin duten ontzien guztizko kopurua. Halaber, zenbaki horietan gertatuko den aldaketa guztien berri emango diote Batzordeari.

2. Erregistroko 500 tona gordinetik beherako ontziak badira, estatu kideek aplikagarri den hitzarmeneko dagozkion xedapenak ezarriko dituzte; eta, hitzarmen aplikagarririk ez dagoenean, beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko ontziak ez direla nabarmen arriskutsu izango segurtasunerako, osasunerako edo ingurumenerako. Paragrafo hau aplikatzeko, estatu kideek Parisko akordioaren memorandumeko 1. eranskinean xedatutakoari jarraituko diote.

3. Inolako hitzarmeneko alde ez den estatu bateko bandera duen ontzi bat ikuskatzen denean, estatu kideek bermatuko dute ontzi horri eta tripulazioari ez zaiola emango tratu hobea hitzarmenen bateko alde den estatu bateko bandera daraman ontziari baino.

4. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo izango dira honako hauek: arrantza-ontziak; gerra-ontziak; itsasontzi-unitate laguntzaileak; antzinako ontzien erara egindako zurezko ontziak; estatuen jabetzako ontziak, merkataritzakoak ez diren xedeetarako erabiltzen direnak; eta merkataritzarako erabiltzen ez diren yateak.

4. artikulua

Ikuskatze-gaitasunak

1. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, lege gaituta izan daitezen atzerriko ontzietan zuzentarau honetan aipatutako ikuskatzeak egiteko, Nazioarteko Zuzenbideari jarraiki.

2. Estatu kideek agintaritza eskudun egokiak edukiko dituzte eta, horretarako, beharrezko pertsonala izango dute, bereziki ontziak ikuskatzeko gaitutako ikuskatzaileak (hori, esate baterako, kontratazio bidez lortuko dute). Halaber, beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte bermatzeko ikuskatzaileek beren eginkizunak beteko dituztela, zuzentarau honetan xedatu bezala; eta, bereziki, zuzentarau honek agindutako ikuskatzeak egiteko moduan izango direla.

5. artikulua

Ikuskatze-sistema eta ikuskatzeak egiteko urteko konpromisoa

1. Estatu kideek 12. artikuluan azaldutako hautaketa-sistemaren eta I. eranskineko xedapenen arabera egingo dituzte ikuskatzeak.

2. Estatu kide bakoitzak honako hauek egingo ditu ikuskatzeak egiteko urteko konpromisoa betetzeko:

a) Bere portu eta ainguralekuetan geldialdia egiten duten eta I. lehentasun-indizea duten ontzi guztiak ikuskatuko ditu, 12. artikuluko a) idatz-zatian xedatutakoa betez; eta

b) I. eta II. lehentasun-indizea duten ontzien ikuskatze-kopuru jakin bat egingo du urtero, 12. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan agindutakoa betez. Kopuru hori bat etorriko da, gutxienez, urtero Erkidegoan eta Parisko akordioaren memorandumaren eskualdean egin behar diren guztizko ikuskatze-kopurutik dagokion kuotarekin. Estatu kide bakoitzaren ikuskatzeen kuota arrazoi hau izango da: estatu kideko portuetan geldialdia egiten duen ontzi-kopurua zati Parisko akordioaren memorandumaren eskualdeko eta Erkidegoko estatu bakoitzeko portuetan geldialdia egiten duten ontzien guztizkoa.

3. Erkidegoan eta Parisko akordioaren memorandumaren eskualdean urtero egin behar diren guztizko ikuskatzeen kuota kalkulatzeko (2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatu da kuota hori), ez dira zenbatuko ainguralekuan dauden ontziak, baldin eta kasuan kasuko estatu kideak ez badu bestelako erabakirik hartzen.

6. artikulua

Ikuskatzeak egiteko konpromisoa betetzeko arauak

Joko da estatu kide batek, 5. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian eskatzen diren ikuskatzeak ez egin arren, betetzen duela aipatutako 5. artikuluekiko konpromisoa, baldin egin ez dituen ikuskatzeak ez badira honako hauek baino gehiago:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) Arrisku handiko profileko I. lehenetasun-indizea duten eta estatu horretako portu eta ainguralekuetan geldialdia egiten duten ontzien guztizko kopuruaren % 5.

b) Arrisku handiko profilekoak ez diren baina I. lehenetasun-indizea duten eta estatu horretako portu eta ainguralekuetan geldialdia egiten duten ontzien guztizko kopuruaren % 10.

a) eta b) idatz-zatietan adierazitako ehunekoak gorabehera, estatu kideek, nahitaez, lehenetasuna eman behar diote, ikuskatzeen datu-basean jasotako informazioaren arabera, Erkidegoko portuetan maiz geldialdirik egiten ez duten ontziak ikuskatzeari.

a) eta b) idatz-zatietan adierazitako ehunekoak gorabehera, I. lehenetasun-indizea duten eta ainguralekuetan geldialdia egiten duten ontzien kasuan, estatu kideek, nahitaez, lehenetasuna eman behar diote, ikuskatzeen datu-basean jasotako informazioaren arabera, Erkidegoko portuetan maiz geldialdirik egiten ez duten ontziak ikuskatzeari.

7. artikulua

Erkidegoan ikuskatzeen kuota orekatua izateko aukera ematen duten arauak

1. 5. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitakoaren arabera, estatu batean I. lehenetasun-indizea duten ontzien guztizko geldialdiak gehiago izan badira estatu horren ikuskatzeen kuota baino, joko da estatu horrek betetzen duela bere konpromisoa baldin gutxienez ikuskatzeen kuota adina ikuskatze egiten badizkie I. lehenetasun-indizea duten ontziei, batetik; eta baldin egin ez dituen ikuskatzeen kopurua ez bada handiagoa estatuko portu eta ainguralekuetan geldialdia egin duten I. lehenetasun-indizedun ontzien guztizkoaren % 30 baino, bestetik.

2. 5. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitakoaren arabera, estatu batean I. edo II. lehenetasun-indizea duten ontzien guztizko geldialdiak gutxiago izan badira estatu horren ikuskatzeen kuota baino, joko da estatu horrek betetzen duela bere konpromisoa baldin 5. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian eskatzen den I. lehenetasun-indizedun ontzien ikuskatze-kopurua betetzen badu, alde batetik; eta estatuko portu eta ainguralekuetan geldialdia egin duten eta II. lehenetasun-indizea izan duten ontzien guztizkoaren gutxienez % 85 ikuskatu baditu, beste aldetik.

3. Batzordeak, 35. artikuluan aipatutako berrazterketan, aztertuko du, bereziki, artikuluko honek ikuskatzeak egiteko konpromisoan dituen ondorioak, Erkidegoan eta Parisko akordioaren memorandumean eskuratutako ezagutza espezializatua eta esperientzia kontuan hartuta. Berrazterketa horretan, aintzat hartuko da Erkidegoko portu eta ainguralekuetan geldialdia egiten duten ontzi guztiak ikuskatzeko helburua. Egoki bada, Batzordeak neurri osagarriak proposatuko ditu, Erkidegoan aplikatzen den ikuskatzeak egiteko sistemaren eraginkortasuna hobetzeko; eta, behar izanez gero, berriz aztertuko ditu artikuluko honek dituen ondorioak, geroago.

8. artikulua

Ikuskatzeak atzeratzea eta salbuespenezko kasuak

2009/16/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131 2009/05/28koa)

1. Honako kasu hauetan, estatu kide batek erabaki dezake I. lehenetasun-indizea duen ontziaren ikuskatzea atzeratzea:

a) Baldin ikuskatzea egin badaiteke ontziak estatu kide berean egingo duen hurrengo geldialdian, betiere ontziak ez badu geldialdirik egiten bitarte horretan Erkidegoko edo Parisko akordioaren memorandumaren eskualdeko beste porturen batean; eta baldin atzerapena ez bada 15 egun baino luzeagoa.

Baldin ikuskatzea egin badaiteke ontziak geldialdia egingo duen Erkidego barruko edo Parisko akordioaren memorandumaren eskualde barruko beste portu batean 15 eguneko epean, betiere geldialdia egiteko portu hori dagoen estatuak alde aurretik onartu badu ikuskatzea egitea.

a) edo b) idatz-zatian xedatutakoaren arabera ikuskatze bat atzeratzen bada eta ikuskatzeen datu-basean jasotzen bada, atzeratzea erabaki zuten estatuak ez da zenbatuko egin gabeko ikuskatze gisa.

Dena den, zuzentarau honen arabera, I. lehenetasun-indizea duen ontzi bat ikuskatzen ez bada, ontzi hori ez da salbuesita izango geldialdia egingo duen Erkidegoko hurrengo portuan ikuskatzetik.

2. I. lehenetasun-indizea duen ontziaren ikuskatzea ez bada egiten arrazoi operatiboak direla-eta, ez da zenbatuko egin gabeko ikuskatze gisa ondoko salbuespenezko kasu hauetan, betiere ikuskatzea ez egitearen arrazoia ikuskatzeen datu-basean jasotzen bada:

a) Agintari eskudunaren iritziz, ikuskatzea egitea arriskutsua bada ikuskatzaileen, ontziaren eta tripulazioaren segurtasunerako, edo portuko edo itsasoko ingurunearen segurtasunerako.

b) Ontziak gauean baino egiten ez badu geldialdia portuan. Kasu horretan, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko beren portuetan aldiro-aldiro gauez geldialdia egiten duten ontzietan ikuskatzeak egin ahalko direla, egoki denean.

3. Ainguralekuetan dauden ontziei egiten ez zaizkien ikuskatzeak ez dira zenbatuko egin gabeko ikuskatze gisa, baldin:

a) Ontzia Erkidegoko edo Parisko akordioaren memorandumaren eskualde bateko beste portu edo ainguraleku batean ikuskatzen bada, I. eranskinarekin bat, 15 eguneko epean; edo

b) ontziak portuan geldialdia gauez baino ez badu egiten, edo ikuskatzea behar bezala egiteko denbora laburregia hartzen badu geldialdiak; eta ikuskatzea ez egitearen arrazoia ikuskatzeen datu-basean jasotzen bada; edo

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) agintari eskudunaren iritziz, ikuskatzea egitea arriskutsua bada ikuskatzaileen, ontziaren eta tripulazioaren segurtasunerako, edo portuko edo itsasoko ingurunearen segurtasunerako.

onetsiriko erakundeak; eta konpainiaren historia (I. eranskineko I. zatiko 1. atalaren eta II. eranskinaren arabera).

4. Zuzentarau honetako funtsezko ez diren elementuak aldatzeko neurriak, artikulua hau aplikatzeko arauak buruzkoak, hartuko dira kontrol bidezko arautze-prozeduraren arabera (31. artikuluko 3. paragrafoan jaso da prozedura hori). Aldaketek osatu egingo dute zuzentara.

b) Parametro historikoak

Parametro historikoak honetan oinarrituko dira: denbora-aldi jakin batean erregistratutako akats- eta ibilgetze-kopuruan (I. eranskineko I. zatiko 2. atalaren eta II. eranskinaren arabera).

9. artikulua

Ontziak iritsi direla ohartarazteko jakinarazpena

1. 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikuskatze zabalagoa egin dakioken eta estatu kide bateko portu edo ainguraleku batera joaten den ontziko kapitainak, agenteak edo ustiatzaileak portu edo ainguraleku horretara iritsi dela jakinaraziko du, III. eranskinean ezarritako xedapenei jarraituz.

2. Portuko agintariak edo erakundeak edo eginkizun horretarako izendatutako agintariak edo erakundeak jasotzen dutenean artikulua honetako 1. paragrafoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/59/EE Zuzentaraiak⁽¹⁾ (2002ko ekainaren 27koa, Erkidegoan itsas trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema ezartzeari buruzkoa) 4. artikuluan adierazitako jakinarazpena, informazio horren berri emango diote agintari eskudunari.

3. Artikulu honetan aipatutako jakinarazpen guztiak egiteko, bitarteko elektronikoak erabiliko dira, ahal den guztietan.

4. Estatu kideek ontzien jakinarazpenen arloan 2002/59/EE Zuzentaraian ezarritako xedapen egokiak betez egingo dituzte prozedurak eta formatuak, zuzentarau honetako III. eranskinaren ondorioetarako.

10. artikulua

Ontziaren arrisku-profila

1. Estatu kide bateko portu edo ainguraleku batean geldialdia egiten duen ontzi bakoitzari arrisku-profil bat ezarriko zaio ikuskatzeen datu-basean. Arrisku-profil horrek erabakiko du zer nolako lehentasuna duen ontzi hori ikuskatzeak, ikuskatzeen arteko denbora-tarteak eta ikuskatzeen irismena.

2. Zenbait arrisku-parametro orokor eta historiko bateratzearen bitartez zehaztuko da ontzien arrisku-profila; hona hemen parametroak:

a) Parametro orokorrak

Parametro orokorrek honako hauek izango dituzte oinarri: ontziaren bandera, adina eta klasea; esku hartzen duten

¹ EO L 208, 2002.08.05ekoa, 10. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Zuzentarau honetako funtsezko ez diren elementuak aldatzeko neurriak (aldaketek osatu egingo dute zuzentaraua), artikuluko hau aplikatzeko arauak buruzkoak eta, bereziki:

- a) banderako estatuari buruzko irizpidearen eta
- b) konpainiaren historia-irizpidearen gainekoak,

hartuko dira, batetik, kontrol bidezko arautze-prozesuaren arabera (31. artikuluko 3. paragrafoan jaso da prozedura hori); eta, bestetik, Parisko akordioaren memorandumaren esparruan eskuratutako esperientziaren arabera.

11. artikulua

Ikuskatzeen maiztasuna

Erkidegoko portu edo ainguralekuan geldialdia egiten duten ontzietan aldizkako ikuskatzeak edo ikuskatze gehigarriak egingo dira, honako xedapen hauen arabera:

- a) Ontzietan aldizkako ikuskatzeak egingo dira aurrez zehaztutako denbora-tarteetan, ontzien arrisku-profilaren arabera, I. eranskinen 1. zatian araututakoa betez. Aldizkako ikuskatze batetik besterako denbora-tartea luzeagoa izango da ontzien arriskua txikiagoa den neurrian. Arrisku handiko ontzietarako, denbora-tarte hori sei hilabete edo laburragoa izango da.
- b) Ontzietan ikuskatze gehigarriak egingo dira, edozein izanik ere azken aldizkako ikuskatzea egin denetik igaro den denbora-tartea; honela egingo dira ikuskatze gehigarriak:
 - Agintari eskudunak ziurtatuko du ikuskatuko direla I. eranskinen II. zatiko 2. A atalean aipatutako premiazko faktoreak aplikatzen zaizkien ontziak.
 - Ikuskatu ahalko dira I. eranskinen II. zatiko 2. B atalean aipatutako bat-bateko faktoreak aplikatzen zaizkien ontziak. Agintari eskudunak erabakiko du ea ikuskatze gehigarriak egin behar diren, bere irizpide profesionalaren arabera.

12. artikulua

Ontziak hautatzea, ikuskatzeko asmoz

Agintari eskudunak ziurtatuko du arrisku-profilaren arabera hautatuko direla ontziak, ikuskatzeak egiteko, II. eranskinen I. zatian azaldu bezala; eta, premiazko faktoreak edo bat-batekoak sortzen direnean, II. eranskinen II. zatiko 2. A eta 2. B atalen arabera.

Ikuskatzeak egiteko, agintari eskudunak:

- a) hautatuko du zer ontziri egingo zaion nahitaezko ikuskatzea, eta «I. lehentasuneko ontziak» deituko die; I. eranskinen II. zatiko 3. A atalean azaldutako hautaketa-sistemaren arabera egingo du hori.

- a) hautatu ahalko ditu zer beste ontziri egin dakiekeen ikuskatzea, eta «II. lehentasuneko ontziak» deituko die; I. eranskinen II. zatiko 3. B atalean azaldutako hautaketa-sistemaren arabera egingo du hori;

13. artikulua

Hasierako ikuskatzeak eta ikuskatze zehatzagoak

Estatu kideek ziurtatuko dute 12. artikuluen arabera ikuskatzeko hautatuko diren ontzietan hasierako ikuskatzea eta ikuskatze zehatzagoa egingo direla, honako xedapen hauen arabera:

- 1) Ontzien hasierako ikuskatze bakoitzean, agintari eskudunak bermatuko du ikuskatzaileak honako hauek egingo dituela, gutxienez:
 - a) Egiaztatu badituela Erkidegoko itsasoko legediak eta segurtasun- eta babes-arloko hitzarmenek ontzi barruan eramatera behartzen dituzten ziurtagiriak eta dokumentuak (IV. eranskinean zerrendatuak).
 - b) Egiaztatu ea estatu kide batek edo Parisko akordioaren memorandumua sinatu zuen estatu batek egindako aurreko ikuskatzean antzemandako akatsak zuzendu dituen, horrelakorik badago.
 - c) Nahikotzat jo behar ditu ontziaren baldintza orokorrak eta higie-ne-baldintzak, ostatu-lekuetakoak eta makina-geletakoak barne.

- 2) Lehenengo paragrafoan aipatutako ikuskatzetik aurrera, ikuskatzeen datu-basean jaso bada ontziak hurrengo geldialdia egingo duen portuan konpondu behar diren akatsak, portu horretako agintari eskudunak erabaki dezake ez egitea 1. puntuko a) eta c) idatz-zatietan adierazitako egiaztatzeak.
- 3) Lehenengo paragrafoan aipatutako ikuskatzea egin eta gero, ikusten bada arrazoiak daudela uste izateko ontziaren edo ontziko ekipamenduaren edo tripulazioaren baldintzek ez dituztela funtsean betetzen aplikagarri diren hitzarmenen baten aginduak, ikuskatze zehatzagoa egingo da. Azterketa zehatz horretan, xehetasunez egiaztatuko da ontziaren barruan betetzen diren ontzia ustiatzeko baldintzak.

«Arrazoi funtsatuak» daudela joko da baldin ikuskatzaileak, bere irizpide profesionalaren arabera, aurkitzen badu ontzia, ontziko ekipamendua edo tripulazioa xehetasun handiagoz ikuskatu behar dela adierazten duen frogaren bat.

V. eranskinean ezartzen dira «arrazoi funtsatuak» adibideak.

14. artikulua

Ikuskatze zabalagoak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. I. eranskineko II. zatiko 3. A eta 3. B ataletan xedatutakoarekin bat, ikuskatze zabalagoa egin daiteke honako ontzi-kategoria hauetan:

- Arrisku handiko profila duten ontzietan.
- 12 urte baino gehiago dituzten bidaiari-ontzietan, petrolio-ontzietan, produktu kimikoak eta gasak eramateko tanga-ontzietan eta solteko gaien ontzietan.
- Arrisku handiko profila duten ontzietan edo 12 urte baino gehiago dituzten bidaiari-ontzietan, petrolio-ontzietan, produktu kimikoak eta gasak eramateko tanga-ontzietan eta solteko gaien itsasontzietan, premiazko faktoreak edo bat-batekoak agertzen direnean.
- 16. artikulua betez egindako sarrera ukatzeko jakinarazpena dela-eta beste ikuskatze bat egin behar zaien ontzietan.

2. Ontzi horretako kapitainak edo ustiatzaileak ziurtatuko du operazioen plangintzan nahikoa denbora utziko duela ikuskatze zabalagoa egin dadin.

Ontzia portuan izango da ikuskatzea bukatu arte, eta segurtasuna bermatzeko beharrezko kontrol-neurriak har daitezke.

3. Agintari eskudunak, ikuskatze zabalago aldizkakoa egin dakioken ontzi baten alde zuzen jakinarazpena jasotzen duenean, ontzi horri jakinaraziko dio baldin ikuskatze zabalagoa egingo ez bada.

4. VII. eranskinean jaso da ikuskatze zabalagoaren irismena, barne hartu behar diren arrisku-eremuak barne. 31. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera, Batzordeak VII. eranskina aplikatzeko neurriak hartuko ditu.

15. artikulua

Segurtasun- eta babes-arloko zuzentarauak eta prozedurak

1. Estatu kideek ziurtatuko dute beren ikuskatzaileek betetzen dituztela VI. eranskinean jasotako prozedurak eta jarraibideak.

2. Babesari buruzko egiaztapenei dagokienez, estatu kideek kasu bakoitzean egoki diren prozedurak (Zuzentarau honetako VI. eranskinean adierazi direnak) aplikatuko dizkiete Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 725/2004 (EE) Erregelamenduko⁽¹⁾ 3. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako ontzi guztiei; hain zuzen, beren portu eta ainguralekuetan geldialdia egiten dutenei, ikuskatzea egingo den portua zuzentzen duen estatuko bandera ez badaramate, behintzat.

3. 14. artikuluko xedapenak (ikuskatze zabalagoei buruzkoak) ibilgailuen transbordadorei eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzietan aplikatuko zaizkie, 1999/35/EE Zuzentarauko 2. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan araututakoa betez.

1999/35/EE Zuzentarauko 6. eta 8. artikuluei jarraituz ontzi bati azterketa egin badio ontziaren banderako estatua ez den beste estatu kide batek, berariazko azterketa hori ikuskatze zehatzago edo

ikuskatze zabalago gisa erregistratuko da ikuskatzeen datu-basean, kasuan kasu egoki den bezala. Halaber, kontuan izango da zuzentarau honetako 10., 11. eta 12. artikuluetan jasotako helburuetarako eta estatu kide bakoitzaren ikuskatzeak egiteko konpromisoa zenbateraino bete den ikusteko, ikuskatzeak Zuzentarau honetako VII. eranskinean aipatutako elementuak estaltzen baditu.

Ibilgailuen transbordadore bat eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzi bat itsasoan ibiltzeko debekua izanik ere (1999/35/EE Zuzentarauko 10. artikuluen arabera erabakia), Zuzentarau honetako xedapenak aplikatuko dira –akatsak zuzentzeari, ibilgetzeari eta sarrera ukatzeari eta ikuskatzeen, ibilgetzeen eta sarrera-ukatzeeen jarraipenari buruzkoak–, kasu bakoitzean egoki den eran.

4. Beharrezkoa bada, Batzordeak artikuluko 1. eta 2. paragrafoen aplikazioa bateratzeko arauak jar ditzake, 31. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat.

16. artikulua

Ontzi jakin batzuei sarrera ukatzeko neurriak

1. Estatu kideek zainduko dute ontzi jakin batzuei, zehazki

– Batzordeak urtero argitaratzen dituen ikuskatzeen datu-basean jasotako informazioa oinarri hartuta Parisko akordioaren memoranduma betez onartutako zerrenda beltzarekin bat datorren ibilgetze-indizea duen estatu bateko bandera izanik, 1999/35/EE Zuzentarauaren arabera aurreko 36 hilabeteetan bi aldiz baino gehiagoz estatu kide baten edo Parisko akordioaren memorandumaren zati den estatu baten portuan edo ainguralekuan ibilgetuta izan diren edo itsasoan ibiltzeko debekua duten ontzietan, edo

– Batzordeak urtero argitaratzen dituen ikuskatzeen datu-basean jasotako informazioa oinarri hartuta Parisko akordioaren memoranduma betez onartutako zerrenda grisarekin bat datorren ibilgetze-indizea duen estatu kide bateko bandera izanik, 1999/35/EE Zuzentarauaren arabera aurreko 24 hilabeteetan bi aldiz baino gehiagoz estatu kide baten edo Parisko akordioaren memorandumaren zati den estatu baten portuan edo ainguralekuan ibilgetuta izan diren edo itsasoan ibiltzeko debekua duten ontzietan

